

# ELAREN PROPOSAMENA TRANSIZIO EKOSOZIAL JUSTURAKO

*ELAren proposamenak  
lantokietan trantsizio  
ekosozial justurantz  
aurrera egiteko*



[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA



## AURKIBIDEA

1. ELAren proposamena trantsizio ekosozialerako .....	3
2. Negozioazio kolektibora eramana beharreko aldarriak .....	4
3. Barne prozesua .....	5
4. ELAren proposamena trantsizio ekosozialerako .....	5

ELAk negoziazio kolektiborako trantsizio ekosoziala egingo du datozen hilabeteetan. Sindikatuak barne prozesu bat egin du, eta sindikatuko hainbat alorretako 150 arduradunek baino gehiagok hartu dute parte. Amaitzeko, aldarrikapen taula bat egin da, eta enpresen negoziazio kolektibora eramango da.

Ez da erraza ingurumenari loturiko gaiak sindikatuaren egunerokoan txertatzea. Baina uste osoa dugu enplegua defendatzeko modurik onena arazoei aurrea hartzea dela, eta larrialdi ekologikoaren erronkari aurre egiteko, dugun eredu ekonomikoa aldatu behar dela.

Erronkari aurre egiteko, 2023ko ekainean, dokumentu bat argitaratu genuen, ELAk trantsizio ekosozialerako egiten zuen proposamenaren berri emateko. Une horretan, trantsizio energetikorako gure proposamena ere argitaratu genuen.

## 1. ELAREN PROPOSAMENA TRANTSIZIO EKOSOZIALERAKO

Trantsizio ekosozialaren proposamena Hego Euskal Herriko ekonomiaren diagnostiko batetik abiatu zen, non ondorioztatu zen gure ekonomia kanpotik ekarritako energiaren menpeko dela, batez ere energia fosilaren menpeko, eta baita kanpotik ekartzen diren material kantitate izugarrien menpeko ere. Jarduera nagusiak industria eta garraioa dira, horiek dira gainera, energia fosilarekiko eta inportatutako materialekiko menpekotasun handiena dutenak. Ekonomia globalarekiko menpekotasun horri ekonomia zirkularra ez dela gehitu behar zaio: material birziklatuen eta berrerabilien erabilera oso baxua da, eta hondakinen sorrera, berriz, oso altua. Ahaztu gabe gure ekonomiak ingurumenean duen eragina handia dela eta sortzen den berotegi efektuko gasen kantitatea ere izugarria dela.

Erronka horren aurrean, ELAk, politika publikoak aldatzea eskatzen duen neurri hauek proposatzen zituen:

- Materialen eta energiaren kontsumoa murriztea, planetaren mugen barruan kokatu arte, eta justizia globalarekin.
- Energia sektorea berrantolatzea, sektorea publikatuz, pertsonen beharren zerbitzura dauden energia berriztagarriak garatuz eta energia fosilen ekoizpena geldiaraziz.
- Ekonomia birkokatzea, tokiko ekonomia zirkular bihurtuz, material eta energia berriztagarrietan oinarrituta, eta ekoizpen ereduak dibertsifikatuz.
- Garraio-sistema eraldatzea. Elektrifikazioa ez da nahikoa izango; merkantzien eta pertsonen mugikortasuna murriztu behar da, pertsonen mugikortasuna garraio publiko kolektiboan oinarrituta.
- Elikadura burujabetza, agroekologia eta basogintza iraunkorra garatzea.
- Ekonomia berrantolatzea. Zaintza, bizitzaren jasangarritasuna eta zaintza lan feminizatuen banaketa erdigunean jarritz.
- Aberastasuna banatzea eta lanaldia murriztea, soldata murriztu gabe. (berehala 35 ordura murriztea, 32 ordurazko lehen pauso gisa).
- Oinarrizko zerbitzuak desmerkantilizatzea. Zerbitzu publikoak garatzeak lehentasuna izan behar du pertsonen beharrak merkatutik pasatu gabe asetzeko.

## **2. TRANTSIZIO EKOSOZIALAREN ONDORIOAK ENPLEGUAN**

ELA bidezko trantsizio ekosozialarekin konprometituta dago. Gure ekarpen nagusietako bat da enpleguari zentralitatea ematea: enplegu gehiago eta kalitate handiagoa.

Krisi ekologikoak ekoizpen, mugikortasun eta kontsumo ereduak aldatzea ekarriko du, eta horrek enpleguari ere zuzenean eragingo dio. ELAk, eredu berri hori langile klasearen eta gehiengo sozialen interesak lehenetsiz eraiki dadila eskatzen du, eta beharrezkotzat jotzen du sindikatuak horretarako borroka egitea.

Enpleguan gertatzen diren aldaketek eragin desberdina izango dute sektoreka: jarduera batzuk ez dira onargarriak (armagintza edo espekulazioa, adibidez), eta desagertu egin behar dira; beste jarduera batzuk egiteari utzi behar zaio (adibidez, energia fosilen ekoizpena); jarduera batzuk erabat murriztu edo eraldatu beharko dira (automobilgintza, siderurgia...). Bidezko trantsizio ekosozial bat ezin da egin sektore horietako langileak alde batera utzita. Bidezko irteera eman behar da, edozein kasutan, alternatiba hauetako bat izanik: enpresaren jarduera eraldatu, beste jarduera batzuetan birkokatu, diru-sarrera duinak bermatu....

Gainera, enpleguaren ikuspuntutik, Sektore batzuek enplegua sortzeko duten potentziala kontuan izan behar da: energia berriztagarriak, eraikinen birgaitzea, agroekologia, arrantza eta baso-kudeaketa jasangarriak, garraio publikoaren garapena, materialen kontsumoa eta hondakinak murriztea, ondasunak berrerabiltzea, hondakinen kudeaketa egokia...

Beraz, enplegua erdigunean jarriko duen trantsizio ekosozial justu baten alde lan egingo du ELAk.

### **3. BARNE PROZESUA**

Gizarte justuago, demokratikoago eta jasangarriago baterantz egin behar dugu aurrera, eta ELAk eraldaketa horren parte izan behar du. Horregatik, joan den udatik, ELAk barne prozesu bat garatu du, ekintza sindikala Trantsizio Ekosozial Justurantz bideratzea helburu izan duena. Beharrezkoa iruditzen zitzaigun, politika publikoak aldatzea eskatzeaz gain (funtsezkoa da hori, eta planteatzen jarraituko dugu), urrats eraginkorrek egitea negoziazio kolektiboan zenbait aldarrikapen sartzeko, trantsizio horretan aurrera egiteko.

Orain arte, lan bat egin dugu Nazio Batzordean eta hiru federazioetako idazkaritzetan: Gizalan, Zerbitzuak eta IEF. Prozesu parte hartzailea izan da, eta formakuntza eman da trantsizio ekosozial justuari buruz, eta gai hori sindikatuan nola landu behar dugun ere eztabaidatu da. Gainera, aldarrikapen taula bat adostu da, negoziazio kolektibora eramango dena.

### **4. NEGOZIAZIO KOLEKTIBORAKO ALDARRIKAPEN TAULA**

ELAn egindako eztabaidaren ondoren, ondoriozta dezakegu gure jarduera sindikalean trantsizio ekosozialarekin lotutako aldarrikapenak sartzeko beharrari buruzko adostasuna dagoela. Azken hilabeteotan egindako barne prozesuan, aldarrikapen taula hau adostu da, ELA sindikatuak ordezkarietza duen sektoreetan negoziazio kolektibora eramango dena:

1. Enpresei informazioa eskatzea. Adierazle hauen azken 5 urteetako datuak:

- Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak
- Sortutako hondakinen mota, kantitatea eta tratamendua.
- Energia fosilaren eta energia berriztagarriaren kontsumoa.
- Ur-kontsumoa.

Ingurumen Baimen Bateratua (IBB) duten enpresetan, baimenean ezarritako eskakizunen jarraipenari eta betetzeari buruzko urteroko txostenak ere eskatuko dira.

2. Emisioak, hondakinak, energia fosilen erabilera, energia berriztagarriak eta ur-kontsumoa hobetzeko planak eskatzea, baloratzeko eta neurriak proposatzeko edo asmo handiagoko helburuak eskatzeko.

3.- Langileentzako mugikortasun planak eskatzea. Mugikortasun plan horiek enpresa batean planteatu daitezke, baina baita industrialdeetan, eskualdeetan eta abarretan ere. Beraz, askotan planteamenduak enpresa bat gaindituko du. Plan horietan elementu hauek hartuko dira kontuan:

- Garraio kolektiboa erabiltzea.
- Joan-etorriak murriztea.

- Enpresek kostua beren gain hartzea (edo, garraio publikoa gehituz gero, administrazioek).

#### 4.- Erosketa arduratsu “berdea” eta lokala eskatu.

Enpresek egiten dituzten erosketek erosketa arduratsu, lokal eta ekologikoaren irizpideak lehenetsi behar dituzte. Printzipio hori era guztietako enpresetan planteatu daiteke, edozein jarduera sektoretan kokatzen direla ere.

#### 5. Lantokietako jangeletan elikadura burujabetza eskatzea.

Jantoki guztiek (eskola jantokiak, ospitaleetakoak, egoitzetakoak, industria enpresetakoak, etab.) elikadura osasungarria eta kalitatekoa izateko eskubidea eta elikadura burujabetza izan behar dituzte oinarri.

Gainera, behin bakarrik erabiltzeko ontziak kendu behar dira, eta hondakinen % 100 bereizita bildu. Enpresek eta udalerriek gaikako bilketa erraztu beharko dute, hondakinak sortzen diren lekutik ahalik eta hurbilen eta behar adina edukiontzi jarritz.





[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

**ELA**  
**EUSKAL SINDIKATUA**